



Ikasgela irekia

Euskara ikasten Madrilen

María Jesús López

Euskara ez da bakarrik Euskal Herrian irakasten. Badira munduan zehar hainbat eta hainbat erakunde (unibertsitateak, euskal etxeak, kultur erakundeak, hizkuntzeskolak) euskara irakasten dutenak. Ezagutzen ditugu Argentinako euskara ikasteko programak, esaterako. Baina hain urrutira joan gabe badira, besteak beste, Madrilen bertan ere hainbat eta hainbat ikasle euskara ikasten ari direnak. María Jesús López madrildarrak euskara ikasi zuen Madrileko Hizkuntz Eskola batean. Jatorrizko hiztunen-gandik ezin bereiz daitezkeen euskaldun horietako bat da. Eta euskara-irakasle dihardu Madrilgo Jesús Maestro Hizkuntza Eskola Ofizialean. Bere artikuluan Hizkuntz Eskola horretan ari diren euskara-ikasleen berri ematen digu, berriro ere “ezina ekinez egina” esaera egia izan daitekeela baieztatuz.

Non gaude?

Euskara Madrilen ikasi nahi duenak badu aukera Madrilgo Jesús Maestro Hizkuntza Eskola Ofizialean.

Espainiako Hizkuntza Eskola Ofizialen artean hauxe dugu, hain zuzen, adierazgarrietako bat. Izan ere, eskolaren ibilbide luzeaz gain –gogora dezagun 1911. urtean sortu zela– irakasle-ikasle kopuruak eta bertan eskaintzen diren hizkuntzek eta ikastaroez bereizi egiten dute.

Gaur egun 130 irakasle aritzen gara lanean eta 8.500 ikasle inguru daude matrikulatuta (7.800 bat ofizial moduan eta besteak *That's English* urrutiko modalitatean). Ikasleak aurkitzen duen hizkuntza-eskaintza zabala da benetan, Jesús Maestro Eskolan 22 hizkuntza irakasten baitira: Europar Batasuneko hizkuntza ofizial gehienak irakasteaz gain, arabiera, txinera, japoniera eta errusiera ikas daitezke bertan, baita curriculumetik kanpoko poloniera eta hungariera ere.

Zenbat gara?

Espainiako hizkuntza koofizialek ere badute lekua Eskolan, eta euskarari dagokionez 1984-1985 ikasturtetik aurrera euskara-eskolak ematen dira. Euskara ikasten dutenek talde polita osatzen dute gaur egun. Hastapenetan ikasle gutxiago egon arren, esan daiteke 1990tik aurrera etengabe handitu dela ikasle-kopurua.

Azken bost urteotan, adibidez, euskara ikasteko matrikulatu direnen batez besteko kopurua urteko 130-150 bitartekoa izan da. Eta urtero 50 edo 60 eskaera jasotzen dira eskolan, euskara ikasi nahiko luketenen aurkeztuak. Hau da, gero eta interes handiagoa sumatzen da euskararekiko eta, ildo horretatik, adierazgarria da oso azken urteotan izan ditugun 1go mailako bi taldeak eta 3. mailako talde bakarra bete izana.

Jasotzen diren eskaerengatik izango balitz, Oinarrizko Mailako euskara-talde gehiago osa litezke seguruenik, baina bi irakasle baino ez izateak asko mugatzen du eskolan eskaintzen diren euskara-taldeen kopurua.

Oraingo ikasleriaren profila

Aurtengo euskara-ikasleen ezaugarriak eta aurreko urteotakoena nahiko antzekoak dira orokorrean. Dena den, esan beharra dago gure ikasleen profila ez datorrela guztiz bat Hizkuntza Eskolako gainerako ikasleen profilarekin. Eskolako beste ikasleen kasuan ohiko ikaslea ikasketak bukatu dituen 25 urte inguruko emakumezkoa da nagusi. Euskara-ikasleen kasuan, ordea, ezin da esan emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago direnik.

Adinari dagokionez, bestalde, euskara ikasle gehienak gazteak dira, 22-35 urte bitartekoak. Hala ere, talde guztietan adin guztietako jendea ere badago. Nahiz eta, arestian esan bezala, ikasle gehienak gazteak diren, 50 urtetik aurrerakoak ere ez dira gutxi, zenbait taldetan erretiroa hartutako batzuk daudelarik.

Ikasketa-mailari dagokionez, gehienek ikasketak dituzte, horietako askoren kasuan goi-mailakoak. Beste batzuk, berriz, unibertsitateko ikasleak dira, eta Madrilen masterren bat egitera etorriak ere ez dira falta.

Euskara-ikasleen lanbideak askotarikoak dira, gizarte-eremu askokoak: ikasle asko irakaskuntzaren arloan aritzen dira lanean, baina beste asko abokatuak, informatikariak, kazetariak, erizainak, funtzionarioak, BBK-ko langileak, edota autobus-gidariak dira, besteak beste.

Madrilen euskara ikasten duten ikasleen jatorriari dagokionez, ezberdintasunak antzematen dira mailaz mailako ikasleen artean. Izan ere, oinarrizko mailako kurtsoetako ikasle ia gehienak madrildarrak dira edota Espainiako beste lurraldeetakoak, euskal jatorrikoak gutxi batzuk izanik. Baina, kurtsoetan aurrera egin ahala, alderantzizko egoera gertatzen da, gero eta gehiago baitira Euskal Herritik etorritako ikasleak.

Aurtengo ikasturtean, adibidez, oinarrizko mailako gehienak madrildarrak dira; erdiko mailari dagokionez, ikasleen % 25 gutxi gorabehera Madrilgoak dira eta beste guztiak euskal jatorrikoak, eta goi-zikloaren kasuan jadanik ikasle gehien-gehienak, guztiak ez esatearren, Euskal

Herrikoak dira, denbora luzea Madrilen daramatenak edo lanagatik edota ikasketengatik hona etorriak.

Euskal herritar ikasleen jatorriari dagokionez, ikasle gehienak bizkaitarrak dira, eta beste gutxi batzuk nafarrak, gipuzkoarrak eta gasteiztarrak.

Euskara ikastera bultzatzen dituzten arrazoiak era askotakoak dira eta, neurri handi batean, ezberdinak ikasleen jatorriaren arabera. Horrela, askotan, madrildar ikasleen motibazioak ez du zerikusi handirik Euskal Herritik etorritako ikasleekin.

Zerk bultzatzen du Euskal Herrikoa ez den norbait euskara ikastera? Ikasle hasiberriei galdetuz gero, oso erantzun ezberdinak jasoko genituzke: batzuek, madrildarrak izanda ere, badute nolabaiteko lotura Euskal Herriarekin, familiakoren bat, bikotekidea edo hainbat lagun hangoak direlako. Beste batzuek, ordea, jakin-minak bultzatuta ekiten diote euskara ikasteari.

Zenbaiten kasuan euskal hizkuntza bera da ikasten hasteko pizgarria, munduko hizkuntzarik zaharrenetariko bat izatea eta ahaide ezagunik ez edukitzea oso erakargarria iruditzen baitzaie. Beste askoren kasuan, berriz, euskal kultura ezagutu nahia da euskara ikasteko arrazoirik handiena. Horietakoa batzuek, adibidez, Euskal Herrian oporralditxo bat pasa ondoren, hango jendeak eta ohiturek liluratuta, erabakitzen dute euskara pixkat ezagutzea. Baina ez da harrizkoa ikasleren bat edo beste aurkitzea, Euskal Herrian inoiz izan gabe, euskal musikagatik adibidez ikasten hasteko erabakia hartzen duena. Ez dira falta lanagatik ikasten dutenak edota Espainiako hizkuntza guztiak ezagutu nahi dituztela esaten dutenak ere.

Ikusten denez, asko dira euskara ikasteko izan daitezkeen arrazoiak, eta askotan arrazoi bat baino gehiago aurki daitezke ikasleengan. Euskal Herritik etorritako ikasleak, euskal kulturari interesa izateaz gain, titulua lortzearen etortzen dira maiz eskolara, jakin badakitelako Euskal Herrira itzultzen direnean beharko dutela.

Euskara ikastearen aurreko jarrerak

Esan beharra dago Madrilgo Hizkuntza Eskola Ofizialean euskara ikasten duten ikasle askok beste hizkuntza bat gutxienez ondo dakitela, eta, horretaz gain, ez dira gutxi euskararekin batera beste hizkuntza bat eskolan bertan ikasten dutenak. Beraz, hizkuntzak ikasten trebatuak direnez, ikasle askok nahiko baliabide dituzte euskararen ikas-prozesuari modu arrakastatsuan aurre egiteko.

Euskara ikasten hasten diren ikasleen kasuan, azpimarratzekoa da, oro har, erakusten duten ilusio eta motibazio handia. Edozein egokiera aprobetxatzen dute klasean ikasi dutena praktikan jartzeko eta, ahal duten guztietan, Madrilen izaten diren euskal ekitaldietara bertaratzen dira, batik bat euskal taldeen kontzertuetara.

Ikasle asko teknologia berriez baliatzen dira beren kabuz euskara ikasteko; eta oso pozgarria da haientzat Euskal Herrira joan eta jendearekin

oinarrizko harremanetan (dendetan, tabernetan, jatetxeetan...) euskaraz aritzeko gai direla ikustea.

Goi Zikloko ikasleen kasuan ere nahiko ohikoa da internetez baliatzea euskal irratia entzuteko edota berriak noizean behin euskaraz irakurtzeko. Gehienak gainera beren arteko eskolatik kanpoko jardueretan euskarara erabiltzen saiatzen dira eta horrek euskararekiko oso jarrera aldekoa erakusten du.

Nolanahi ere, zailtasunak ere badituzte Madrilgo euskara ikasleek: 2. eta 3. kurtsoetako zenbait ikasle, esate baterako, kexu ohi dira euskara hizkuntza zaila delakoan. Baina dudarik gabe, kexarik zabalduena honako hau da, Madrilen euskara ikasteen klasez kanpo euskaraz mintzatzeko aukerak murriztegiak izatea.

Aipatzekoa da, halaber, klasera etortzeari uzten diotenen kopurua oso altua dela, batez ere oinarrizko kurtsoetan, bertan behera uzte horren arrazoiak askotarikoak izanik.

Metodologia

Madrilgo Hizkuntza Eskola Ofizialean ematen diren euskara-eskolak arratsaldean izaten dira, sei kurtsoan banatuak. Ikasturte honetan hasi den ikasketa-plan berria dela medio, euskara irakaskuntza hiru mailatan egituratzen da: aurtien Oinarrizko Mailaren bi kurtsoak eta Erdiko Mailaren lehenengo kurtsoa ematen dira eskolan, eta horietaz gain oraindik aldatu ez den Goi Zikloko bi kurtsoak.

Oinarrizko eta Erdiko Mailen curriculumak 31/2007 Dekretuak ezarriak dira, B.O.C.M.eko 147. zenbakian argitaratuak, eta *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzi Marko Bateratuari* egokitzea dute helburu.

Euskara Departamentuan darabilgun metodologia komunikatiboa da batik bat. Ikasgelako jarduerak ikasleen komunikazio-gaitasuna garatzea du helburu, komunikazio-egoera ezberdinetan eta, hizkuntza baliabideak erabiliz, modu egoki eta eraginkorrean aritzeko gai izan daitezten.

Hizkuntza komunikatzeko balio duen tresna bat izaki, hizkuntzaren erabilera bultzatzen da, ikaslearen gaitasun linguistikoa, soziolinguistikoa, pragmatikoa eta estrategikoa aldi berean landuz. Beraz, ikasgelan proposatzen diren jarduerak, askotan komunikazio-atazetan onarrituta, helburu zehatzak eta komunikatiboak izan ohi dituzte, ikasleak ahalik eta egoera errealean hizkuntza erabil dezan.

Ikaslea da, gure ustez, ikas-prozesuaren ardatza, eta horren arabera antolatzen ditugu ikasgelako ekintzarik gehienak, ikasleen parte hartze aktiboa bultzatuz.

Irakaslea ikas-prozesuaren bideratzailea besterik ez da, eta guri dagokigu neurri handi batean, euskal kultura ezagutarazi eta interesa sortzeaz gain, ikasleen motibazioa indartu eta haien ardura eta ikasteko autonomia garatzen laguntzea.

Oinarrizko eta erdiko mailen kasuan, kurtso bakoitzean ikusi beharreko edukiak eta funtzio komunikatiboak unitate didaktikoetan daude banatuta.

Ikasteko materialak

Zoritxarrez, salgai dauden testu-liburu eta material didaktikoen artean ez dago bat ere euskara departamentuak prestatuturiko programazioarekin guztiz bat datorrenik.

Oinarrizko eta erdiko mailen kasuan, ez dugu aurkitu geure unitate didaktikoen antolaketa eta hurrenkera duenik; horregatik, klasean erabiltzen den materiala askotarikoa da, liburu ezberdin askotatik hartua, alegia.

Oinarrizko eta erdiko mailetan gehien erabiltzen ditugun liburuak eta material didaktikoak honako hauek dira: *Baietz*, *Aditu!*, *Ari gara*, *IKA*, *Euskalduntzearen A mailako langaiak*, *Ostalaritza*. *Tabernan*, *jatetxean*, *Dendaketan*, *Barrendik 1A*, *Barrene 1B*, *Barrenet 2*, eta *Baietz ba! 2, 4 DBH-ESO*, besteak beste. Eskertzekoa da benetan *Ikasbil* web orrian horietako asko eskuragarri izatea.

Gabeziarik handiena, hala ere, hasiberrientzako entzumenezko materialaren faltan sumatzen da. Testu-liburu berriek entzumena lantzeko CDA badute ere, *-Aditu!* liburaren kasua, adibidez-, etsigarria da zer material gutxi dagoen hutsetik euskara ikasi nahi dutenei zuzendua. Gainera, Oinarrizko Mailako 1go kurtsoko ikasleentzat daukagun ikus-entzumenezko material asko zeharo zaharkiturik gelditu da dagoeneko (*Bai horixe* bideoetan besterik ez dugu pentsatu behar, esate baterako) eta pena da sortzen diren material berriek, *Aisa* izeneko etorkinentzako materialak kasu, irudiz lagunduriko entzumenezko material berririk ez izatea.

Erdiko Mailatik aurrera ikasgelan erabiltzen den ikus-entzumenezko material gehiena benetakoa da, Euskal Telebistatik edota irratitik hartua. Zentzu horretan, laguntza handi-handikoak zaizkigu HABEK prestatzen dituen *Dokumentu biltegiko* CD eta DVDak.

Egia esanda, Goi Ziklorako dagoen materiala ugaria da: 4. eta 5. kurtsoetan, guk prestatuturiko materialaz gain, *Igara* eta *Izurungoak* materiale-tako zenbait unitate erabiltzen ditugu, baita *Irakurriz ikasi* edota *Egoki*, *Hizkuntza eta literatura 4 DBH* bezalako liburuetatik hartutako hainbat testu eta ariketa, baina neurrigabeko altxorra dugu, zalantzarik gabe, www.ikasbil.net, mota askotako idazkiak eta entzungaiak topa baitaitezke bertan. Halaber, askotan jotzen dugu www.berria.info, www.argia.com edota www.eitb24.com bezalako orrietara gaur egungo berrien bila.

Klaseko jarduerak, esan bezala, ikasleen komunikazio-gaitasuna gartzeta du helburu, eta horretarako komunikazio-atazak eta mintzapraktikarako jokoak egin ohi ditugu. Gramatika lantzeko ariketak normalean etxean egiten ditu ikasleak, gero klasean zuzentzeko. Goi Zikloari dagokionez, trebetasun guztiak lantzen dira klasean, gai eta testu egokien bidez.

Ebaluazioa

Ikaslearen ikas-prozesua kurtsoan zehar kontrolatzen du irakasleak bai klaseko jarduera eta eginkizunen bidez bai otsail aldera (eta Oinarrizko Mailako ikasleen kasuan abenduan ere) horretarako espresuki prestatuturiko proben bidez.

Ekaineko probaren emaitzak izaten dira, oro har, baliorik handiena dutenak, baina lehenengo eta bigarren kurtsoetan etengabeko ebaluazioa ere egiten da. Hirugarren eta bosgarren kurtsoen kasuan, berriz, ezin izaten da etengabeko ebaluaziorik egin, zeren eta ekainean eta irailean egiten diren probek euskara-agiriak lortzeko balio baitute.

Ikasturte honetan, lehen aipatu dugun bezala, euskara Oinarrizko eta Erdiko mailak aurreneko aldiz ezarri dira Jesús Maestro Eskolan eta esan beharra dago oraindik ez dakigula nolako probak egin beharko ditugun Oinarrizko eta Erdiko Mailako agiriak lortu ahal izateko (Madrilgo Hezkuntza Kontseilaritzari dagokio proba horien nondik norakoa zehaztea eta oraindik ebaluazio-ordena ez da argitaratu). Beraz, hurrengo lerroetan azalduko dudanak aurreko urteotako ebaluazio-sistemaren berri ematen du.

Proben atalak

Kurto guztietako ekaineko eta iraileko azterketetan ikaslearen irakurmen, entzumen, idazmen eta mintzamenerako gaitasuna neurtzen da, horretarako proba espezifikoak daudelarik.

Lehenengo eta bigarren kurtsoen kasuan, aipaturiko lau atal horiei gramatika atala gehitzen zaio. Ikasleak kurtoa gainditu ahal izateko, atal guztiak aprobatu behar ditu, bakoitzean %60 gutxienez aterata.

Ez dago proba baztertzailerik, hau da, ikasleak atal guztiak egin ditzake, eta ekainean gainditutako atalak ez dira irailean errepikatu behar.

Oinarrizko eta Goi Zikloko azterketen kasuan, atal bakoitza bi edo hiru ariketak osaturik dago. Erabiltzen diren testuak errealak dira eta probetan ager daitezkeen ariketa-motak era askotakoak izaten dira. Irakurmena eta entzumena aztertzeko ataletan, adibidez, honako ariketak aurki daitezke: besteak beste, bospasei testu labur dagozkien titularrekin lotzekoak, testu baten inguruko galdera irekiak, erantzun anitzeko galderak, entzundako informazioarekin osatu beharreko taula edo eskema, edota zenbait hitz falta zaizkion testu bat, ematen diren hitzekin osatu beharrekoa. (Ariketa-mota horien bi adibide ematen dira idazkiaren bukaeran eranskin moduan).

Idazmena neurtzen duen atala bi ariketak osatzen dute eta ahozko atalean ere bi parte daude. Lehenengoan, bakarkakoan, ikasleak aldeztu aurretik emandako gai baten inguruko hitzalditxoak egin behar du, gai-aurrezpenean emandako puntuei jarraituz. Eta bigarren atalean, binakakoan, ikas-kide batekin gai bati buruz eztabaidatu behar du, egokitu zaion jarrera defendatuz eta horren aldeko argudioak emanez.

Ebaluazio-irizpideak

Idazmen eta mintzamenerako ebaluazio-irizpideak biltzen dituzten taulak erabiltzen ditugu. Honakoak dira bertan azaltzen diren irizpideak:

Idazmena ebaluatzeko irizpideak:

EGOKITASUNA	<ul style="list-style-type: none">• Eskatzen den formatoa erabiltzea.• Erregistro egokia erabiltzea, hartzaile, egoera eta komunikazio-helburuaren arabera.• Eskatzen den gaia atxikitzea, emandako puntuak tratatuz.• Testuan ematen den informazioa garrantzizkoa izatea.
KOHESIOA ETA KOHERENTZIA	<ul style="list-style-type: none">• Informazioa eman eta antolatzeke era.• Testuaren ideia eta esaldien arteko lotura eta koherentsia.• Testuaren loturak eta juntagailuak.• Puntuazioa.
ABERASTASUNA	<ul style="list-style-type: none">• Erabilitako egiturak eta lexikoa egokiak eta askotarikoa izatea.• Eskatzen den informazioa zehatza eta aberatsa izatea.
ZUZENTASUNA	<ul style="list-style-type: none">• Arau morfosintaktikoen erabilera zuzena.• Ortografiaren erabilera zuzena.• Lexikoaren egokitasun eta zuzentasuna.

Mintzamena ebaluatzeko taula nahiko antzekoa da, ikaslearen hitz jarria eta ahoskera, baita probaren bigarren atalean ikaskidearekiko interakzioa ere kontuan hartuz.

Gaindituen ehunekoa

Ikasturteen arabera emaitzak aldatzen badira ere, kurtsoz kurtso emaitzak ikusita, esan daiteke antzeko joera gertatzen dela urtero. Oro har, 1go eta 2. kurtsoetan gainditzen duten ikasleen kopurua oso altua izaten da, baina, kurtsoetan aurrera egin ahala, gaindituen ehunekoa jaitsi egiten da nabarmen.

Adibide moduan, 2006-2007 ikasturteko datuak aurkezten dira. Ematen diren ehunekoak ekaineko eta iraileko azterketetara aurkeztuen arabera dira. Dena den, ez aurkeztuen kopurua ere kontuan hartzekoa da, zeren eta gehienetan oso altua baita. Aurreko ikasturteko ekaineko deialdian, esate baterako, lehengo, bigarren eta laugarren kurtsoetan %45 ingurukoa izan zen, eta hirugarren eta bosgarren kurtsoetan, berriz, %25 ingurukoa. Irailean normalean askoz gehiago dira azterketara aurkezten ez direnak.

Lehen esan dugun bezala, lehenengo eta bigarren kurtsoetan gaindituen ehunekoa oso altua izaten da. Aurreko ikasturtean, adibidez, lehenengo kurtsoaren kasuan %90 ingurukoa izan zen eta bigarren kurtsoan %60 ingurukoa. Oinarrizko Mailatik aurrera, ordea, gaindituen ehunekoa gu-

txitzen da: hirugarren kurtsorearen kasuan, ikasleen %30k gainditu zuen, laugarren kurtsoko gaitutuen ehunekoak %40 ingurua izan zen, eta 5. kurtsorean, berriz, %35 ingurukoak.

Libre moduan Oinarrizko eta Goi Zikloko azterketak egin zituztenen artean gaitutuen ehunekoak, berriz, %60 eta %15 ingurukoak izan ziren hurrenez hurren.

ONARRIZKO ZIKLOA IRAKURRITAKOAREN ULERMENA

HIRUGARREN ATALA (20 x 0,5 puntu = 10 puntu)	10
Irakur ezazu testua eta bete itzazu hutsuneak, beheko zerrendako hitz bana erabiliz. Erantzuteko, erabil itzazu hurrengo orrialdeko lauki zuriak. Hitz bakoitza BEHIN BAKARRIK erabil daiteke. 5 hitz soberan daude. Lehenengo hutsunea beteta dago, adibide gisa.	

INORK NAHI EZ DUEN DIRUA

Herritar gehienen poltsikoetan eta ia etxe guztietako ____ (0) ____ - (e)zko potoetan daude, baina ____ (1) ____ -k erabiltzen dituzte. Euroaren zentimo bateko eta biko txanponak dira; agian, ____ (2) ____ - (z)eko zorian dagoen beste espezie bat. Europako Batasuneko herrialde batzuek zirkulaziotik kentzea ____ (3) ____ dute dagoeneko, eta beste batzuek bide bera hartuko dute beharbada, herritarren eta dendariaren ____ (4) ____ -ko salerosketek bultzatuta.

Praktikotasun kontua da ____ (5) ____ . Erosleak eta dendariak ados daude zentimo bateko edo biko txanponak eguneroko erosketetan erabiltzeko txikiegiak eta deserosoak direla iriztean. Txanpon bakar batekin ezin da ezer ____ (6) ____ , eta diru-zorroa leporaino betetzeko besterik ez dutela balio esan ohi du jendeak. ____ (7) ____ -ak, berriz, kezu dira denbora asko galtzen dutelako kobratzean eta bueltak ematera-koan, eta are gehiago, eguneroko lana amaitzeko kaxako dirua ____ (8) ____ behar dutenean.

Kalean, lagunaren artean eta denda barruan dendariak eta erosleak aritzen dira txanpon horien abantailak eta desabantailak parekatzen, baina ____ (9) ____ -en erakundeek diotenez, ____ (10) ____ ez dute kexa formalik jaso.

Erabiltzaileei dagokienez, Euroguneko herritarren %38k diote txanpon ____ (11) ____ daudela, eta %56k, ____ (12) ____ , kopuru egokia dela. Iazko abenduan egindako inkestan, Euroguneko iritzi publikoa txanpon txikiak zirkulaziotik kentzearen alde agertu zen. Zentimo bateko txanpona desegitearen alde %61 daude, eta bi zentimokoa desegitearen alde % 55.

Deserosoak ez ezik, garestiak ____ (13) ____ badira. Altxor Publikoarentzat ez da batere errentagarria zentimo bateko txanponak

egitea. Txanpon horrek bi eta hiru gramo artean ____ (14) ____-t(z)en du eta bere produkzio kostuak balio nominala gainditzen du. Lehengaien garestitzea dela-eta, ____ (15) ____ bi zentimo kostatzen zaie banku zentraleri zentimo bateko txanpon bat produzitzea eta zirkulazioan ____ (16) ____-t(z)ea.

Finlandiak 2002. urtean baztertu zuen bi txanpon txiki hauen ____ (17) ____-a. Gaur egun, ia ezinezkoa da herrialde hartan zentimo bateko edo biko txanponak aurkitzea; agian, bildumazalaren ____ (18) ____-ek edo bestek izango du Finlandiako ikurra duen aleren bat, baina herritar gutxik. ____ (19) ____, erosle batek txanpon horiekin ordaindu nahi badu, dendariak derrigorrez ____ (20) ____ beharko ditu.

Berria 2004.09.01 (laburtua eta moldatua)

INORK NAHI EZ DUEN DIRUA

ASKO	ERABAKI	GUTXI GORA-BEHERA	KONTSUMO
BAT	ERABILERA	HALA ERE	ONARTU
BATEZ ERE	ERE	HIRITAR	ORAINDIK
BERRIZ	EROSI	HORREGATIK	PISATU
DENDARI	GEHIAGO	JARRI	ZENBATU
DESAGERTU	GEHIEGI	KRISTAL	
EGUNERO	GUTXI	KONTSUMITZAILE	

0.	KRISTAL	✓
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
6.		
7.		
8.		
9.		
10.		

11.		
12.		
13.		
14.		
15.		
16.		
17.		
18.		
19.		
20.		

GOI ZIKLOA IRAKURRITAKOAREN ULERMENA

LEHENENGO ATALA (6 x puntu 1 = 6 puntu)

6

Ondoko testuak irakurri ondoren, beheko titularrekin lotu behar dituzu. Kontuan izan ezazu titular bakoitza BEHIN BAKARRIK erabil daitekeela eta hiru titular soberan dardela. 0. testua adibide bat da.

0.

Presidentetzako ministro Jose Antonio Galindok gobernuaren jarreraren berri eman zuen atzo: "Tolerantzia eta bake giroa nagusitzea nahi dugu. Konstituzioa zein Estatuko erakundeak errespetatzea eskatzen diegu herritarrei". Santa Cruzeko Hiri Batzordeari, "bakea eta lasaitasuna bueltatzean", elkarrizketa mahai batean esertzeko gonbitea egin zion. Horretarako, ordea, baldintzak jarri zituen: "Batasun nazionala eta indarrean dagoen ordenu legala errespetatzea". Agintariak Santa Cruzeko biztanleak zoriondu zituen, gehiengoak "jarrera baketsua" izan zuelako.

Berria, 2005-1-23

1. TESTUA

Azaroaren 15ean e-Business Global Conference (EBGC) biltzarra egingo da Euskalduna Jauregian. Antolatzaileek enpresen eta bezeroen arteko harremanei eman nahi izan diete arreta oraingoan. Aitor Cobaneraren esanetan, "aurten azpimarratu nahi duguna da edozein enpresatan, edozein negoziotan, bezeroak direla garrantzitsuena eta beraz, teknologia berriak haien onurarako erabili behar direla". Helburu horrekin, EBGCn nazioarteko hainbat aditu elkartuko dira. Hizlarien artean izango da Don Peppers, merkataritza estrategiaren alorrean munduko 50 *guru* garrantzitsuenetakoa. Bere berbaldian bezeroekiko harremanak sortzeko adibide praktikoak emango ditu, beti ere bezeroen errendimendua ahalik eta handiena izan dadin.

Argia, 2004-11-14

2. TESTUA

Boliviako Santa Cruz eskualdeko Hiri Batzordeak gobernu autonomoa ezartzeko erabakia hartu zuen herenegun. Azken bi asteotan bertako herritarrek protestak egin dituzte erregaien igoera salatzeke, eta horrek eragin du eskualdeak autonomia aldarrikatzea. Beren aldarrikapenari indarra emateko, milioi erdi sinadura biltzen dituen dokumentu bat helarazi zioten atzo Parlamentuko presidenteari. Boliviarren %25 eskualde horretan bizi dira, eta estatuko zergen erdiak baino gehiago ordaintzen dituzte. Santa Cruzek –Boliviako eskualderik handi eta aberatsena bera–, nekazaritzari, abeltzaintzari eta lur azpian dauden energia baliabideei esker, estatuaren Barne Produktu Gordinaren herena sortzen du.

Berria, 2005-1-23

3. TESTUA

Internetek enpresa txikietan sarbide urria eduki badu, norbanakoen artean ere ezin esan guztiz zabaldua dagoenik. EAEko etxebizitzaren %56etan dago ordenagailua, eta Internet %40-45etan. Horra hor enpresa eta herritarren arteko sarearen bidezko harremanak hedatzeko gainditu beharreko lehen mugarrria. Bestalde, badirudi Internetenganako halako mesfidantza dagoela sarritan, erosteko garaian batik bat. Internet asko erabiltzen da kontsultarako, hau da, prezioak, produktuak-eta alderatzeko. Hortik merkataritza elektronikora jauzi egiteko, hainbat oztopo saihesti behar dira, eta lehenbizikoa segurtasuna da. Kontua ez da Interneten segurtasunik ez dagoela, baizik eta gizartearen uste oker hori hedatu dela.

Argia, 2004-11-14

4. TESTUA

Irakeko Gobernuak bozen segurtasunari begira iragarritako plana atzo jarri zuten indarrean. Muga guztiak itxiko dituztela berresteaz gain, Bagdadeko aireportua ere hilaren 29a eta 31 bitartean itxita egongo dela jakinarazi zuten. Gauez etxean geratzeko agindua ezarriko dute herrialde osoan eta eskualdeen arteko mugimenduak murriztuko dituzte. Iad Alauik aitortu zuten segurtasun neurri andana ezarri arren, ezin izango dela ziurtatu datorren igandeko bozak arriskurik gabe igaroko direla. Barne ministroak, berriz, erresistentzia irakiarraren indarkeria areagotzen ahal dela adierazi zuten. Izan ere, herenegun izandako erasoetan hogeita hamar bat lagun hil ziren gutxienez.

Berria, 2005-1-23

5. TESTUA

Israelgo Estatuak eta 1967ko mugak onartzen zituela zioen dokumentu bat plazaratu zuten atzo Hamasek. Horretaz gain, Jerusalem bi herrialdeen artean banatzea ere onetsi zuten erakundeak. Trukean, okupazioa amaitu eta palestinar estatua onartu behar du Israelek. Bestalde, Palestinako Aginte Nazionala (PAN) goi bilera bat prestatzen ari da Egiptoko hiriburuan, talde armatuekiko negoziazioak bukatu eta su-eten orokorra aldarrikatzeko xedez. PANek 3.000 poliziatik gora bidali zituen herenegun Israel eta Gaza arteko mugara, ekintzaile palestinarren erasoak ekiditeko. Israelgo lehen ministro ordeak gorai-patu egin zuten PANek hartutako erabakia. Era berean, Israelek Gaza eta Egiptoren arteko mugak ireki zituen atzo.

Berria, 2005-1-23

6. TESTUA

Internet erabiltzaileen esanetan, "baliteke zenbaitek behar baino gehiago erabiltzea, baina bizitzan gertatzen diren beste hainbat arlotan bezala. Solasguneetan gauero makina bat orduz dagoenak ez du akaso bikotea oso pozik edukiko, baina hortik teknologia berrien

menpekotzat hartzera...". Haien iritziz, batzuen lan interesengatik hedatutako asmakeria da. Izan ere, ohar berdina egin zen, aspaldi, telebista gizartean orokortu zen sasoian. Hala ere, batzuek nabarmendu dute fobia soziala edo depresioa duten zenbaiti mesede egin diezaiekeela, adibidez, solasguneetan aritzeak. Hala ere, gakoa da pertsona horiek alde aurretiko arazo psikologikoren bat duten edo ez.

Berria, 2005-1-23

- A. Amore-emate keinuak
- B. Ordaintzen duenaren zerbitzuan
- C. Bilbon izango diren jardunaldietan ekonomiaren erronkak hizpide
- D. Bakean boto emateko berme handirik ez
- E. Ekonomia, eskari politikoen gibelean
- F. Elkari estatu izatea onartu diote
- G. Fio ez izatea da zioa
- H. Usteak uste, baditu alde onak ere
- I. Salbuespen-neurriek baldintzatuko dituzte hauteskundeak
- J. *Negoiazio-eskaintza baldintzatua*

TESTUA	TITULARRA	
0	J	✓
1		
2		
3		
4		
5		
6		

ZUZENKETA ORRIA

OINARRIZKO ZIKLOA

IRAKURMENA 3. atala

0.	KRISTAL	11.	GEHIEGI
1.	GUTXI	12.	BERRIZ
2.	DESAGERTU	13.	ERE
3.	ERABAKI	14.	PISATU
4.	EGUNERO	15.	GUTXI GORA-BEHERA
5.	BATEZ ERE	16.	JARRI
6.	EROSI	17.	ERABILERA
7.	DENDARI	18.	BAT
8.	ZENBATU	19.	HALA ERE
9.	KONTSUMITZAILE	20.	ONARTU
10.	ORAINDIK		

IRAKURMENA (GZ)

1. atala

0	<i>j</i>
1	b
2	e
3	g
4	d
5	a
6	h
